

NICHOLSON ETA AGIRRE

Hollywoodeko aktore famatu baten deitura dauka euskaldunok munduari egin diogun azken ekarpen ezagunenak. Munduko terrorista arriskutsuenen zerrendari egindakoa zen azken boladako garrantzitsuena. Garai batean Superlopez esaten zioten langileak begirunez esplotatzeko asmakuntza unibertsala egin zuenari. Guztietan garrantzitsuena, hala ere, EITBk nazioarteko berriemate berezien sarea debalde osatzen duten misiolari katolikoak dira eta, guztien buru, euskaldunon ekarpen unibertsalik behinena, Inazio Loiolakoa eta bere konpainia. Zerrenda luzea da, luzeegia igoal, 3 miloi biztanle ez dituen herri batentzat. Gu geu ere harritu egiten gara munduko azken bazterrean bidaia egin eta, han ere, ataundar bat topatzen dugunean. Ezin al gara etxean kieto geratu!

Kontua da hantxe dauzkagula Nicholson, batetik, Ramalan Arafaten giza-babesa osatzen eta Agirre tolosar frantziskotarra, bestetik, Jesus jaio zen estalpea gordetzen. Bien bizitza, babesten ari diren palestinarrena bezala, arriskuan dago. Horrelakoetan estatuek presio egiten dute euren hiritarren bizitza babesteko. Jakina, euskaldunon defentsa Espainiak edo Frantziak hartu behar dute. Nik, halako egoera batean, aukeran nahiago nuke Frantziarena (ez dut uste Frantziako agintariak, EBko buru izanda, Arafaten biltzeko oztopoekin kokilduko lirakekeenik); edo Vatikanarena (Bushek Israelen okupazio militarren kontra egindako lehen adierazpen esanguratsuak, Arafaten setioak baino Belengo Basilikaren setioak eragin dituela dirudi). Galdera da, zer egiten ari da Espainia, zer egiten ari dira euskal agintari autonomoak Nicholson, Agirre eta lurralde palestinarrean arriskuan diren gainerako euskaldunen bizitzak babesteko? Zer egingo dute ezer gertatzen bazaie? Egoera hauetan ere euskaldunok ez daukagu geure burua euskaldun gisa defenditzerik. Eta ez, ez diogu munduari martiri euskaldunik aportatu nahi.

Longas são as estradas da Galileia e curta a piedade dos homens. (Eça de Queiróz)